

BANDOA

Lerro hauen bidez, Oñatiko Udalak bat egin nahi du Herrira mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon “**Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira**” goiburuarekin egingo den mobilizazio orokorarekin.

Giza Eskubideen Deklarazioaren edukiak aintzat harturik, euskal presoek aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrrik gabe utzi behar direla uste dugu. Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditzea, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia betetzea zigorra bete duten 67 presoak libre gera daitezten. Aitzitik, giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko prestutasuna adierazten dugu, betiere modu eraikitzailean egiazko konponbideak bilatu nahian.

Hori horrela, Oñatiko Udalak datorren urtarrilaren 12an (larunbata), Bilbon ospatuko den mobilizazio orokorrean parte har dezazun dei egin nahi dizu. Halaber, urtarrilaren 10ean arratsaldeko 7etan elkarretaratzea deitzen dugu herriko plazan

DEIALDIA:

LEKUA: Bilbon
EGUNA: Urtarrilak 12
ORDUA: 17:30

Oñatin, 2013ko urtarrilaren 9an.

ALKATEAK,

MIKEL BIAIN BERRAONDO